

“Nahi duzu euskal herritarrok gure etorkizun politikoa erabakitzea gure kabuz eta aske?”

Hori da Getxoko Gure Esku Dago-k azaroaren 5eko kontsultako galdera erabakitzeke antolatu zuen prozesu irekian erabaki zen galdera. Zergatik galdera hori?

Galdera erabakitzeak bi atal izan ditu prozesu honetan. Lehendabizi, Batzorde Sustatzailean eztabaidatu eta proposamen bat adostu zen. Argi utzi zen azken erabakia herritarroi zabalduko jardunaldi batean hartuko zela. Bigarrenik, San Nikolas ikastolan irailaren 9an antolaturiko jardunaldia.

Bi momentutan jarri ziren mahai gainean GEDen protokoloak zioena, beste herri batzuetan egindako galderak eta, azken jardunaldian, Batzorde Sustatzaileak egindako proposamena.

Eztabaidari heldu aurretik, hainbat kontu azpimarratu ziren, galderak izan behar zuen ezaugarriei begira:

1. Adostasuna bilatzen da. Pertsona ezberdinak elkartu ginen, ideologia, adin eta kultura ezberdinetatik gatozenak. Ez genuen nahi galdera gehiengoaren legearen arabera erabaki, adostasuna bilatu genuen hasieratik, espazio bat non denok sentitzen ginen eroso. Horrek esan nahi du prozesu horretatik ezin zela irten norberaren galdera, hau da, niri, zuri edo hari gustatuko litzaiokeen galdera, denon arteko adostasun puntu bat baizik.
2. Inklusiboa izatea. Ideologia eta kultura ezberdinetako pertsonak biltzen ginela jakitun, ulertzen genuen galderak ideologia eta kultura guzti horiek bildu behar zituela, inor kanpoan utzi gabe. Prozesuaren hasieratik bilatu da ezberdinen artean egindako bidea, eta prozesuaren erpin nagusira helduta, kontsultara, kontuz ibili behar genuen inor kanpoan ez uzteko. Inklusiboa izateak esan nahi du ideologia eta kultura bakoitzak zerbait utzi behar zuela bidean, elkarren arteko adostasuna helburu. Ulertuko da hori ez dela lan erraza eta guztiok ahalegin handia egitea dakarrela.
3. Galdeketa, herritarrok erabakitzeke eskubidearen inguruan ahalduntzeko prozesu bat da. Galdeketa ez da loteslea, nahiz eta sinbolikoki garrantzi handikoa den (giza katea edo oihalen dinamikarekin alderatuta). Emaizaren garrantzia ez da neurtuko “bai” edo “ez” balioetan,

erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenean Getxo bezalako herri handi batean aktibatzen dugun lagun kopuruan baizik.

4. Getxo. Eztabaidan ezin genuen bazterrean utzi zer eta nolakoa den Getxo soziologikoki. Denok bat gentozen definizioan: ez da herri erraza erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenari gagozkiola. Horrek eraman gintuen Getxori begira "erakargarri" izan zitekeen galdera bat bilatzera.

Horiek horrela, eztabaida zeharo aberats batean, "oztopo" izan zitezkeen hitzak eta arrazoiak jarri ziren mahai gainean. Hor agertu ziren "independente", "estatu", "burujabe" eta "soberano" bezalako hitzak, eta ikusi zen hitz horiek bilatzen ari ginen adostasunetik edo inklusibitateetik urruntzen gintuztela, denak ez baikenen eroso sentitzen hitz horien aurrean edo denok ez baikenituen hitzok berdin ulertzen.

"Deserosotasun" hori eragiten zuten hitzak bazterrean utzita, "erosotasuna" eragiten ziguten hitzak bilatzera pasatu ginen. Non elkartzen ginen erabaki genuen. "euskal herritarrok", "etorkizun politikoa", "askatasuna", "erabakitzea", "nahia"... bezalako hitzak agertu ziren ariketa hartan.

Definitu genituen nabarmendu nahi genituen aldeak:

1. Nahia. Herritarron borondatea argi utzi behar zuen galderari ematen zitzaion erantzunak: "Nahi duzu...".
2. Subjektua. Euskal Herria, euskal jendarte, euskal herritarrok... Hor ibili ginen, erabakitzeko eskubidearen subjektua modu argian definitzeko asmoan: "... euskal herritarrok..."
3. Zer. Nahi edo borondate horren objektua zein den ere bildu behar zen galderan. Hor agertu zen lehen aipatu ditugun hitzen inguruko eztabaida (independentzia...). Uste izan genuen "etorkizun politikoa" bezalako formulak denok hartzen gintuela (independentistak, soberanistak, federalistak...): "... gure etorkizun politikoa erabalitzea..."
4. Erabakitze horri hainbat muga jartzen zaizkio eskubide hori onartzen ez dutenen aldetik: "espainiar guztiek erabaki behar dute", "legearen barruan erabaki behar da", "konstituzioak...". Adostu genuen euskal herritarrok beste inork esku hartu barik erabakitzeko eskubidea dugula, eta hori ere agertu behar zela galderan. Eta, azkenik, erabakitzeko ariketa horrek inposaketarik ez

zuela onartzen, muga legal edo konstituzionalen gainetik herri librearen borondate demokratikoa zegoela: "... gure kabuz eta aske?"

Horiek horrela, testu honen hasieran agertzen den galdera formulatzera heldu ginen, eta elkarri galdetu genion, jakinda denok formulatuko genukeela beste era bateko galdera, baina adostasuna hautsita; jakinda batzuek galdera "ausartuagoa" espero genuela, baina "ausardiak" ezberdintasunak areagotzen zituela; jakinda galderak, formulazio guztiek bezala, aldekoak eta kontrakoak zituela..., elkarri galdetu genion ea eroso sentitzen ginen adostasun puntu horretan, elkarrekin lanean segitzeko prest, konplizitateak lantzen jarraitzeko gertu... Eta erantzuna baietz izan zen.

Azkenik, prozesu honetatik sortu den galderari Gure Esku Dago-ren dinamikatik begiratzen badiogu, uste dugu ondo lotzen dela urteotan egin dugun bidearekin. Euskal Herriko Gure Esku Dago-k behar zen egunean eman zituen jarraibideetan hau zioen: "GED ekimenak herritarron erabakitzeke eskubide nabarmentzen dituzten eta barneratzaileak diren galderak sustatuko ditu. Zentzu honetan, burujabetzari eta Euskal Herriko herritarron eskubideei loturiko galdera hobetsiko ditu. Hona hemen adibide batzuk: 'Euskal herritarrok gure etorkizun politikoa askatasunez erabakitzea nahi al duzu'. Ildo beretsutik: 'Euskal herritarrok gure etorkizun politikoa inongo esku hartzerik gabe erabakitzea nahi al duzu?'". Ulertzen genuen proposatzen ari zen galdera zeharo hurbiltzen zela GEDek proposaturiko eredura.

Aurrekoak galderaren zergatia azaltzeko balioko duelakoan,

Getxon, 2017ko urrian.